

HEZKUNTZAREN SOZIOLOGIA

marina.sagastizabal@ehu.eus

Lehen Hezkuntzako Gradua 1. maila

EDUKIAK

1. GAIA: Soziologiari sarrera

- Hezkuntza eta Jendartea: soziologiaren kontzeptu nagusiak



1. GAIA. Soziologiarako sarrera

Hezkuntza eta Jendartea: soziologiaren kontzeptu nagusiak

KONTROL SOZIALA



○ **Kontrol soziala** jendarte jakin batean ordena mantentzeko sortutako praktiken eta jarrerren multzoa da.

"Pertsonak euren rola espero den moduan bete ditzaten posible egiten duten bidea"

- Sozializazioa, legitimazioa eta rol sozialak
- Kontrol formala eta informala
- Saria eta zigorra

Hezkuntza eta Jendartea: soziologiaren kontzeptu nagusiak

- **Sozializazioa:** bere bitartez gizarteko arauak barneratzen ditugu (gehienetan gutaz espero dena egiten dugu)
- **Legitimazioa:** barneratutako arauak ez ditugu zalantzan jartzen (eta erreproduzitu egiten ditugu)
 - Legitimazioa eta sozializazioa barruko kontrolaren baitan ulertu behar ditugu
- **Kanpoko kontrol soziala:** sozializazioak eta legitimazioak huts egiten badu, kontrol sozialaren mekanismo ezberdinak aktibatuko dira

Hezkuntza eta Jendartea: soziologiaren kontzeptu nagusiak

○ Barneko kontrola:

- Sozializazioa
- Arau eta balioen erreprodukzioa (legitimazioa)

○ Kanpoko kontrola:

- Sariak: arauak errespetatu eta erreproduzitzeagatik
- Zigorrak: arauetatik desbideratzeagatik



Sozializazioa, legitimazioa eta rol sozialak



- **Sozializazioa**: jendarteak behar edo nahi dituen pertsonak sortzen ditu
- Sozializazioaren **helburua** pertsonak jendarte edo **kultura zehatz batean bizitzeko prestatzea da**
- **Arau edo balio multzo bat ikastean eta barneratzean datza**: bizitza estilo bat, bizimodu bat ikastea eta barneratzea
- **Jendarteak eta kulturak eragin handia** dauka gure identitatean, nortasunean
- **Nortasun indibiduala ere jendartean eraikitzen da**, neurri handian, sozializazio prozesuaren ondorioz
- Amaitzen ez den **ikasketa prozesua** da, ez du zertan prozesu formala izan behar

Sozializazioa, legitimazioa eta rol sozialak



- **Legitimazioa:** kultura bat ikastearekin ez da nahikoa, sozializazioak **ikasitakoarekin identifikatzea** eskatzen du, hots, ikasitakoa onartzea, **legitimatzea**
- Sozializazioak persona indibiduak **ordena soziala barneratzea dakar**, legitimatzea, hortaz, **kontrol sozial formalaren beharra murrizten du**
- **Desbideratzea:** taldeak edo jendarteak onartzen dituen **arauetatik kanpo jokatzeko**, legitimazio eza
- Jendarteak era egokian funtzionatzeko, kide guztiei jakinarazi behar zaie zeintzuk diren **haiengandik espero diren jokabideak**
- Desbideratzea **ordenaren egonkortasuna mehatxatu dezake:** gatazkaren iturria.

Sozializazioa, legitimazioa eta rol sozialak

*“Emakume zapaldua,
langile esplotatua,
natura da birrindua!
nazkatuta!!!”*

*Beste mundu bat posiblea da
beharrezkoa da!”*

(Beste mundu bat, Oliba
Gorriak)

- Sozializazioaren bidez **rol sozialak barneratzen ditugu**
- Modu jakin batean jokatzen ikasten dugu
- Aktoreek bezalaxe **gidoi bat ikasten dugu** eta **gure papera antzezten dugu** gizartean
 - ❖ Ikaslea, irakaslea
 - ❖ Langilea, enpresaria
 - ❖ Ama, aita
 - ❖ Emakumea, gizona
- Rolak **aldatuz joan daitezke**: ez gara txontxongilo hutsak, **aldaketa posiblea da**

Kontrol informala



- **Instituzionalizatuak ez dauden kontrol motak** (familiak, lagunak, hedabideak,..)
- **Ez daude idatziak** (araudietan, legeetan, konstituzioan ez dira agertzen)
- **Ohituren, balioen eta arau informalaren bidez** transmititzen dira
- Hauen funtzio nagusia portaera edo **orden jakin bat mantentzea** da (oro har, **status quo-a**)
- Portaera jakin batzuk **debekatzeko edo zigortzeko** **ditu** (diskriminazioaren, irainen edo bestelako jarreraren bitartez)

Kontrol formala



- Estatutuen, araudien, legeen bidez ezartzen da
- **Konstituzioan** agertzen dira
- Estatuaren, instituzioen **legitimazioa** du
- Neurri hauek **governuek eta instituzioek babesten dituzte**, horretarako **zigor ezberdinak erabiliz** (kartzela, isunak, indarkeria poliziala, judiziala,..)
- Estatuak dauka **biolentziaren monopolioa**

Zigorrak

https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/10779/INFORME_FINAL_investigacion_tortura_y_malos_tratos_18-12-2017.pdf

Eusko Jaurlaritzak burututako
torturaren inguruko txostena

- **Naturaz gaindiko zigorrak:** erlijioari, magiari edo superstizioei lotutakoak.
- **Zigor ekonomikoak:** isunak, kaleratzeak, diru laguntza kentzea, etxegabetzea, blokeo ekonomikoa,..
- **Zigor fisikoak:** indarkeria fisiko edo psikologikoa erabiliz ezartzen direnak (heriotza zigorra, tortura,..)
- **Zigor sozialak:**
 - Gogorrangoak: espetxeratzea, isolamendua, klasetik, taldetik kanporatzea, baztertzea, bullying, mobbing,..
 - Leunagoak: begirada latz bat, barre egitea, hitza kentzea,..

Kontrol formal zein
informalak



Kontrol formal zein informalak




Ariketa

*"Legea hautsi,
arauak hautsi,
jarraitu bihotzari,
beldurrak beldur,
usteak ustel,
bihotzaz fido izan,
zeruari listua bota,
patua okertu zazu,
jokatu modu polemikoan,
izanaren dardar argia"
(Antigona, Kuraia)*

Noizbait arauren bat (formal zein informala) hautsi egin dugu? Zer gertatu da?

- Talde bakoitzak arau formal edo informal baten haustura eta horren ondorioa (zigorra) azalduko ditu.

ESTRATIFIKAZIOA



- **Estratifikazioa:** "Prozesu dinamiko bat da zeinen bitartez gizabanakoek gizarte-kokapen desberdinak hartzen dituzten, desberdintasun hauek oinarri hartuta: aberastasuna, boterea, ospea, hezkuntza,.." (Taberner, 2008)
 - **Estratifikazio** edo **mailaketa** kontzeptuen bidez gizarte-desberdintasunen ondoriozko egiturari egiten zaio erreferentzia
- **Gizarte kapitalistetan** (gure kasuan) mailaketa horri **gizarte-klase** deritzo.

ESTRATIFIKAZIOA



- Estratifikazioa edo mailaketa **oinarrizko aldagai baldintzatzailea** da pertsonen balio akademikoak eta hezkuntza-balioak bereganatzeko prozesuan
- Historian zehar izandako **gizarte-desberdintasun guztiak pertsonen sortuak dira**, nahiz eta "biologia" edo "natura" erabili den horiek justifikatzeko
- Sarri, "sahiestezinak" edo "ekonomia arrazionalerako beharrezkoak" direla esanez **ideologikoki zilegitasuna eman zaie**

Edmundo González Blanco, *La inferioridad mental de la mujer*, Madrid, 1905.

"Doy por supuesto que todos mis lectores sabes que el cerebro es el órgano del pensamiento, y que ambos están en una relación tan inmediata y necesaria que el uno no puede existir, ni aun imaginarse, sin el otro (...) Quiero igualmente sospechar que conocen la ley fisiológica, según la cual los efectos del cerebro deben estar en razón directa de la masa de éste. Doy por sentado que conocen también otras leyes fisiológicas complementarias de ésta. Quiero imaginar que están familiarizados con la aplicación que de ellas se ha hecho a la Psicología Comparada, por ser el cerebro del hombre, en relación con la masa de los nervios cefálicos, mayor que el de cualquier otro animal, y hallarse el desenvolvimiento gradual de la potencia intelectual, en toda la serie de los animales, en razón directa siempre de la magnitud y forma del cráneo. Supongo, por último, que no ignoran que el mismo criterio rige en la apreciación del valor mental de las distintas razas humanas y de la evolución de toda la especie en la Historia, pues la parte anterior de la cabeza es, absolutamente hablando, más grande en los Alemanes que en los Chinos ó en los Negros. Y si todo esto se reconoce tocante á las razas y á los individuos, ¿hemos de hacer una excepción con los sexos?

(...)

Desde el punto de vista total, haciendo abstracción de las características del sexo, la Mujer está colocada entre el niño y el hombre, y lo mismo sucede por muchos conceptos desde el punto de vista psíquico.

(...)

Luego si yo veo que un hombre de 1,65 centímetros de estatura, y con 53 centímetros de circunferencia craneana es mentalmente deficiente y se acerca al idiotismo, mientras que una mujer de la misma estatura, con sólo 51 centímetros de circunferencia, supera en capacidad cerebral á muchas de sus compañeras, me es imposible considerar a uno y á otra como entidades equivalentes en lo intelectual.

(...)

Es, sin duda, de lamentar que Moebius, cuya autoridad es tan grande en ciertas cuestiones, haya creído dar con excesiva frecuencia á su libro el aire de un libelo; pero hay que tener en cuenta asimismo la superficialidad é ignorancia de la mayoría de sus adversarios publicistas. En los periódicos, según él propio se informa, se le hizo la guerra con impertinencia singular, sin más argumentos que necias protestas contra demostraciones tan sencillas é indudables. Todá la mala fé de la Literatura de los Feministas en general se evidencia en la conducta que éstos observan ante los datos empíricos que les son desagradables. Cuanódo doctores respetables, después de ingeniosas y fatigosas pesquisas que han durado largos años, se arriesgan á establecer principios anatómicos, cualquier feminista analfabeto se cree con derecho á burlarse. Pero no presentan un solo dato en apoyo de sus convicciones ó conocimientos; se permiten combatir las solamente con mil necias divagaciones é insulsa cháchara..."

Estratifikazioa
klasearen, adinaren,
generoaren edota
jatori etnikoaren
araberakoa izan
daiteke.

Zapalkuntza
hirukoitza (Angela
Davis)




Gizarte-klaseen sistema




- Klaseen araberako estratifikazioa **burgesiaren iraultzen bidez inposatu zen** (Ingalaterrakoa, Estatu Batuetakoa eta Frantziakoa)
- Abantaila eta bizitza-aukera desberdineko mailen osaerak **oinarri ekonomikoa du** bereziki (jabetza eta aberastasun eskuratua –**kapitala**-). Nahiz eta boterea eta ospea izatea ere abantaila-iturri den.
- Teorian erregimen irekia da, juridikoki ez baitago debekatuta maila batetik bestera igarotzea. **Praktikan**, ordea, nahiko **itxia** da:
 - Familia aberatsen seme-alaba gehienek aberatsak izaten jarraitzen dute helduak direnean, gauza bera gertatzen da pobreekin.
- **Legitimazioa** gizarte kapitalistaren argudio meritokratikoen eta ekonomikoen bidez burutzen da: adibidez, "el sueño americano"

Estratifikazioari buruzko ikuspegiak



Ikuspegi funtzionalista

- **Estratifikazioa beharrezkoa da:** jendartea osotasun antolatu bat da eta funtzionatzeko, lana banatzea eta kokapenak hierarkizatzea eskatzen du.
- Erantzukizun eta eskakizun handieneko rolek kokapen abantailatsuen saria izan behar dute.
- **Gizarte hierarkia** abantaila ekonomikoak edo bestelako abantailak lortzen saiatzen diren pertsonen arteko **lehiaren ondorioa** da.
- Posiblea da maila horietan mugitzea eta **hezkuntza sistemak gora egiten lagundu dezake.**



Ikuspegi marxista

- Klase bakoitzak **egiturazko eginkizun bat** du, horrek bereizten ditu mailak eta elkarren aurka jartzen.
- Oinarrizko **ekoizpen-bitartekoen jabeen eta haientzat lan egiten dutenen** (menderatzaileak eta menderatuak) **interesak kontrajarriak** dira, etengabeko gatazka bat da.
- **Gizarte-klaseek irauten duten bitartean, eskolak,** derrigorrezkoa eta doakoa izan arren, ikasle bakoitzaren **klase-kokapena mantenduko du.**

Ariketa



- Zein klase sozialekoak zarete? Taldeka eztabaidatu eta erantzun bat eman
 - Zeri erreparatu diozue galdera erantzuteko?

KLASE SOZIALAK

Aberatsen artean mailaketa:

- Langile aristokrazia
- Erdi mailakoak (x1)
- Aberatsak / pobreak
- Langile klasea (x2) *
- erdi maila "falsua" (x3)

EZABARRIAK

- Biz-baldintzak, Kapitala
- Jara, loa (beharizanak asetuta) (x2) +
- Dirutan aberatsak ez, dirua ez dago sobercin
- Abantailak: Estatutik eratorritako laguntzak
- Bizirauteko lan egin beharra (x5)
- Hezkuntza, diru-laguntzak, etxea, ...
- lan indarra salda *
- Kontsumoaren bitartez aberatsa izatera heldu zaitzela pentsatu

goikoak

behekoak

- Munduko beste herrialdeekin alderatuta ikuspegia adatu daiteke (klase partekatua)
- langile klasea banatzeko
- Zailtasunak definitzeko / jendartea sailkatzeko klaseen arabera
- Kontsumo gaitasuna "Luxuak": bigarren etxea, garagardoak
- "Luxuak": bigarren etxea, kotxea, oporrak, ...
- Kanpoan ikasketak / etxebizitea izateko aukera

ARIKETA

Ateratako ideiak,...



- **Klase sozialak:** langile klasea, langile aristokrazia, klase ertaina edo erdi-mailakoa, aberatsak/pobreak eta aberatsen artean behe mailakoak
- **Ezaugarriak:** bizirauteko lan egin behar dutenak, lan indarra saltzera behartuak, oinarizko beharrianak asetuta (loa, jana, hezkuntza, ura, argia, etxea...), kontsumorako gaitasuna (garagardoak) eta hainbat "luxu" izateko ere (bigarren etxea, bigarren kotxea, oporrak, kanpoan ikasteko eta bizitzeko aukera..)
 - Jendartea klaseen arabera sailkatzeko zailtasunak: errealitate konplexua
 - Munduko beste herrialdeko testuinguruarekin konparatzerakoan ikuspegia aldatu daiteke: "klase pertzepzioa" aldatzen da.

Gizarte-klaseen sistema
gaur egun

EZAUGARRIAK:
ekonomikoak, sozialak
eta kulturalak



DENOK OTE GARA KLASE ERTAINA?

https://www.youtube.com/watch?v=hxmnpAG2SdY&list=PLn_8py9wLkw4SNPi-9T7ymWsjAneWxGvV&index=1

https://www.youtube.com/watch?v=pNi6d1NnHJw&list=PLn_8py9wLkw4SNPi-9T7ymWsjAneWxGvV&index=2

https://www.youtube.com/watch?v=8x9lrEFFjBg&list=PLn_8py9wLkw4SNPi-9T7ymWsjAneWxGvV&index=3

https://www.youtube.com/watch?v=rQxTcw8E7jY&list=PLn_8py9wLkw4SNPi-9T7ymWsjAneWxGvV&index=5

https://www.youtube.com/watch?v=DXYl3h8OBDs&list=PLn_8py9wLkw4SNPi-9T7ymWsjAneWxGvV&index=6

Nondik dator klase ertaina?

○ Ongizate-Estatuaren sorreratik:

- **II Mundu Gerraren ostean**
- **Gerra Hotzaren hasiera:** bloke kapitalista eta bloke sozialista
- **Langile mugimenduaren borrokak**
- **Eskubide sozialen lorpenak:** lan baldintzak hobetzea + zerbitzu publikoak garatzea (lan iraukorrak, 8 ordukoak, atsedanak edo oporrak, langabezia, pentsioak, hezkuntza, osasuna,...)
- **Berlingo harresiaren erorketa:** 89. urtea
- **Neoliberalismoa eta eskubideen murrizketa/desagerpena**





UN MUERTO EN EUSKALDUNA

El primer muerto en Euskalduna...
El primer muerto en Euskalduna...
El primer muerto en Euskalduna...
El primer muerto en Euskalduna...



INSTITUZIOAK




“Instituzioa gizarte konbentzio iraunkor eta antolatua duen sistema da”

○ Instituzioek:

- Jatorri soziala dute
- Kultura mantentzen dute
- Arauak ezartzen dituzte
- Funtzio sozialak betetzen dituzte

Familia, hezkuntza sistema, ezkontza,.. Instituzioak dira

INSTITUZIOEN FUNTZIOAK



○ Instituzio bakoitzak bere funtzioa du:


- **Familiaren funtzioa:** elkarbizitza antolatzea, sexualitatea bideratzea, umeak haztea, lan indarra birsortzea..
- **Hezkuntzaren funtzioa:** belaunaldi gazteak gizarteratzea/sozializatzea eta lan merkaturako prestatzea

HEZKUNTZAREN FUNTZIO SOZIALAK



- Hezkuntza **fenomeno soziala** da
- Hezkuntzak **eragina** du jendartean eta jendarteak hezkuntzan
- **Gertaera kolektiboa** da: jaio aurretik bazegoen eta hil ondoren egongo da
- Hezkuntzaren **eduki, metodo eta helburuak sozialki baldintzatuak** daude jendartearen eta garaiaren arabera

HEZKUNTZAREN FUNTZIO SOZIALAK



Jendarte guztiek hezkuntza erabiltzen dute **behar** dituzten **personak sortzeko/eraikitzeko**

1. **Funtzio sozializatzailea:** Hezkuntza jendartearen **instituzio sozializatzaile nagusia** da
2. **Funtzio ekonomikoa:** Hezkuntza eta **istema ekonomikoa** elkarloturik daude, hezkuntzak lan merkaturako beharrezkoak diren gaitasunak ematen ditu
3. **Funtzio kulturala:** Hezkuntza **nazioa eraikitzeko tresna** da (hezkuntzaren eta hezkuntzaren **homogeneizazioa**)

HEZKUNTZAREN FUNTZIO SOZIALAK



2005. urtean Espainiako hezkuntza lege berria parlamentuan eztabaidatu zenean, Mariano Raxoy-k hauxe esan zuen:

“No podemos aceptar una ley que propone 17 modelos educativos diferentes. Una educación con enseñanzas comunes es la piedra angular del mantenimiento de España como nación viable” (El País, 2005eko azaroaren 8a)

2012an José Ignacio Wert-ek esana:

“Nuestro interés es españolizar a los alumnos catalanes”

Ikastolen sorrera:

<https://vimeo.com/66779718> (4:41 minutua)